



Euskara ukatzen didazunean, bertakoa izatea eta sentitzea ere ukatzen didazu, nahi gabe izan arren.

Euskaraz hitz egiten didazunean, herrien eta kulturen arteko zubia sendotzen ari zara, euskaratik.

Nire azalaren kolorea azalekoa besterik ez da. Euskarari esker, zu bezain euskalduna naiz. Beraz, egin nirekin ere euskaraz!



Kanpainaren informazioa
labur.eus/nirekinERE26



Kanpainaren kartela
labur.eus/kartelaERE26



Kanpainaren bideoa
labur.eus/bideoaERE26



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Eduki hau beste hizkuntza batzuetan.
Gaztelera, arabieraz eta urduz:



Egin
nirekin ere
euskaraz!



Karellys Borges. Habana, Kuba.
Lekunberrin bizi da. Euskalduna.

Sustraiak
Kuban
dituen
eta lehen
hizkuntza
gaztelera
duen
euskalduna
da **Karellys.**



Dahye Kim. Hego Koreanarra.
Lezon bizi da.
Euskalduna.

Sustraiak
Hego Korean
dituen
eta lehen
hizkuntza
koreera
duen
euskalduna
da **Dahye.**



Euskaldunak gara Karelys, Dahye, Cauria, Aurora, Marta, Hamida, Bonavie, John Bryan, Marianela, Paula, Alejandra eta Loli.

Kuban, Hego Korean, Saharan, Nikaraguan, Etioipian, Aljerian, Filipinetan, Kolonbian, Ekuadorren, Portugalen, Argentinan edota Hondurasen jaiogara, besteak beste. Bizi, berriz, Lekunberri, Lezo, Igorre, Leitza, Hondarribia, Zumaia, Ikastegieta, Segura, Arantza, Ondarroa, Basaburua eta Gatican bizi gara, baina gainerako udalerrit euskaldunetan ere hamaika Karelys, Dahye edo Bonavie ditugu gure artean, zorionez.

Gaztelera, hassaniera, arabiera, koreera, portugesa edo amharera jaso dugu etxean, besteak beste. Euskara, beraz, ez da gure lehen hizkuntza, baina euskara ikasi dugu eta ikasten ari gara, eta euskaraz aritzen gara herritarrekin.



Askotan, ordea, azalaren koloreagatik, aurreiritziengatik edota auskalo zergatik erdaraz hitz egiten digute gainerako herritarrek.

Baina gu ahalegin handia egiten ari gara euskara ikasteko, eta euskaraz hitz egin nahi dugu. Badakigulako euskara dela zubirik ederrena, eta euskara ukatzen diguten bakoitzean zubia ere ukatzen zaigulako.

Gu euskaldunak gara. Beraz, egin gurekin ere euskaraz! **Egin nirekin ere euskaraz!**